

### DEKANOA

#### - IN MEMORIAM -

**I**kasturtea amaitzeko zorian dagoen honetan, graduako titulazio berrien ezarpen prozesua ere amaitutzat emango dugu, gradu amaierako lehenengo lanen defentsarekin. Horrela, fakultateko kolektibo guztioak esfortzua, lana eta ilusioa dedikatu dizkiogun etapa bat amaituko da. Beste erronka asko geratzen dira, adibidez gure graduak ziurtatzeko prozesua, baina horrek ez du iluntzen orain arte egindako lan garrantzitsuagatik bizi dugun poza.

Egunotan, eskolak amaitu direnean eta beroa iritsi denean, denak ondo merezitako oportetako atsedenean pentsarazten digu. Baina, zoritxarrez, bi pertsonaren heriotzaren berri jakin dugu. Bi lagun hauek fakultatearen historian sartzeko merezimenduak egin dituzte. Ramón Martín Mateo eta Xabier Galarraga Aldanondo irakasleez ari naiz. Espazio hau ez da egokiena erreseina biografiko batentzat, baina lerro hauetan gogoeta xume bat egin nahi nuke, zati batean pertsonala, bi lagun atsegin hauei buruz. Haien asko eman zioten ikastegi honi, eta horregatik gogoratuak izatea merezi dute.

Ramón Martín Mateo irakasleak urte luzez ikerketan eta irakaskuntzan jardun zuen fakultate honetan. Administrazio Zuzenbideko katedraduna zen, eta Ingurumen Zuzenbidean aitzindaria izan zen. Garai hartan, Administrazio Zuzenbideko eta Enpresaren Ekonomiako irakasleen bulegoak elkarren ondoan zeuden. Horregatik, berriketa asko egin genuen. Berak erakutsi zuen jakintsua ez ezik gizon ona zela. Gero, UPV/EHUren aitzindari izan zen Bilboko Unibertsitateko errektore izan zen. Bera errektore izan zenean, hain zuzen ere, unibertsitatearen izendapen aldaketa eskatu eta lortu zen. Horregatik, on Ramón Bilboko Unibertsitateko azken errektorea izan zen. Eta bere karrera akademiko eta juridiko bikainari jarraipena emateko asmoz, Alacanteko Unibertsitate sartu berrira joan baino lehen, fakultate honetako dekanorde izateko astia izan zuen.

Xabier Galarraga Aldanondo irakaslea gure fakultateko ikasle ohien lehenengo promozioetako bateko kide izan zen. Zehazki, 1969an lizentziatu zen, ni fakultate honetan ikasle gisa sartu baino urtebete lehenago. Bere amaztearekin batera (Mari Carmen Gallastegui, ikastegiko irakasle izan dena), master eta doktorego ikasketak egin zituen atzerriko unibertsitate ospetsuetan. Gero gugana itzuli zen, Teoria Ekonomikoaren alorrean irakasle izateko. Gure herriko bizitzan parte hartzeko asmoz, fakultateko irakaslea zen aldi berean erakunde publikoetako kudeaketa lanean ari zen. Irakaskuntzaren funtzioaren defendatzaile sutsua izan zen beti, batzuetan unibertsitateko irakasleen ebaluazioan gutxietsia zela atzematen zuena (eta arrazoia zeukan, nire ustez). Erretiratu zenean, hain zuzen ere, despedida moduan hitz egin zuen, fakultateko lizentziatu berrien inbestidura ekitaldian, eta bere hizaldian irakaskuntza goratu zuen.

Esker onekoa izan beharra dago. Eskerrik asko bioi. Beti izango zaituztegu gogoan.

Arturo Rodríguez

### Fakultateko taldea saritua izan da estatuko fasean

Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak "Asociación Científica de Economía y Dirección de Empresas" Saria (ACEDE)

lortu zuen Melillan ospatutako Espainiako VI. Olinpiada Ekonomikoan. Batezbesteko nota altuena duten ikasleez osatutako taldea aurkezten duen fakulta-

teari ematen zaio saria. Gure ikastegitik olinpiadaren estatuko faseara joandako hiru ordezkarietatik bi lehenengo hamar sailkatuen artean geratu dira.



## Olimpiada de Economía

Ekonomiako Olinpiada irakaskuntzako eta hezkuntzako lehiaketa da. Helburuak gazteen artean ekonomiaren ikaskuntza bultzatzea eta sustatzea da, esfortzua eta bikaintasun akademiko saritzea, eta fakultatearen eta batxilergoko ekonomia irakasleen arteko lotura egonkorra finkatzea. Unibertsitateak ez ditu ahaztu etorkizunean bere ikasgeletan egongo diren irakasleen prestakuntza arazoak. Horregatik, kontaktuak eta harremanak mantentzea garrantzitsua da, jakintza eta esperientziak trukatu ahal izateko. Ekonomiaren Olinpiada bi hezkuntza mailen arteko to-

pagune izan behar da.

Lehiaketak bi maila dauzka: tokikoa eta estatukoa. Ekonomiaren Olinpiadaren tokiko fasean, bigarren hezkuntzako ikastetxeetako ikasle guztiek parte hartzen dute, ikastetxe publiko nahiz pribatuetaoak, ikasturtean Batxilergoko 2. mailako Ekonomia eta Enpresen Antolaketa ikasgaiaren marikulatuta daudenak EAEn. Fase hau UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Fakultateak antolatzen du. Aurten seigarren edizioa egin da, batxilergoko 25 zentrotako 169 ikasleren parte hartzearekin. Euskadiko Eko-

nomiaren Olinpiadaren VI. edizioko lehenengo sailkatu diren hiru ikasleak hauek dira: Borja Urrea, Paula Ortega eta Rubén Ordoñez.

Estatuko fasean, parte hartzen duten unibertsitate publikoek tokiko fasean hautatu dituzten hiruna ikasleek parte hartzen dute. Aurten, era berean, estatuko fasearen seigarren edizioa egingo da Melillan, 30 unibertsitate publiko baino gehiagoren parte hartzearekin. 2013an, Espainiako Ekonomia Olinpiadak "Olinpiada Zientifiko" izendatu zuen Hezkuntza Ministerioak.

Mercedes Vallejo





## Alfredo Delgado irakaslearen bisita

## ALAC 2014an saritutako fakultateko irakasleak

Ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean Latinoamerikako Kasuen Elkartearen Urteko IX. Batzarra egin zen Bilbon, "Berrikuntza ardatz nagusia Iberoamerikan" izenburupean. Latinoamerikako Kasuen Elkartea (ALAC) irakasleen artean kasuaren metodoa sustatzen duen elkartea da. Teknika didaktiko horren bidez, irakasleek arrazoinamendu kritikoko eta arazoak konpontze-

ko gaitasuna areagotzen dute, benetako egoeretara hurbilduz. Edizio honetan, gure fakultateko irakasleen bitartean saritu dituzte.

"Experiencia en la Aplicación de Casos: Innovando en la Docencia Universitaria de Ciencias Empresariales a través del Método del Caso" izenburuko artikuluak, Yolanda Chicak idatzitakoak, ALAC 2014 bederatzigarren urteko batzarrean aurkeztutako Ar-

tikulu Onenaren Saria lortu du.

Elena Catalán, Igor Goñi, Igor Etxabe, Pedro M<sup>o</sup> Pérez Castroviejo eta Miguel Ángel Etxebarriaren "Pan para hoy... ¿Hambre para mañana?" kasuak, berriz, ALAC 2014 bederatzigarren urteko batzarrean aurkeztutako Kasu Onenaren Saria eskuratu du. Bi sariak Latinoamerikako Kasuen Elkartea eta Monterreyko Teknologikoak eman dituzte.



Ekainaren 2tik 6ra, Alfredo Delgado Guzmán, Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko (UNAM) Administrazio Zientzietako Gradu Ondokoaren koordinatzailea, fakultatera etorri zen bisitara.

Guzmán irakaslea lagun zaharra dugu ikastegi honetan, gehiagotan etorri baita. Gainera, fakultateko irakasleen bisitaldiak sustatu ditu, UNAMen administrazioiko gradu ondokoetan eskolak emateko.

Oraingo honetan, Latinoamerikako gradu ondokoaren antolaketaz eta kudeaketaz mintegi bat eskaintzeaz gain, dekanoarekin eta fakultatean ematen diren zenbait gradu ondokotako arduradunekin elkarrizketak egin zituen, harremanak sakontzeko eta UNAMekin alor horretan lankidetzak akordioak sinatzeko.



Unibertsitateko irakasleen artean ekintzailetzaren aldeko kultura sustatzeko eta UPV/EHUko irakasleek beren ezagutza pasatzen dietela erakusteko, Bizkaiko Campuseko EHU Abiatu programak "Think big 2014" Enpresa Ideien Lehiaketa antolatu du. Parte hartzeko, enpresa-proiektu bilakatu daitezkeen ideia bat bidali behar da.

Edizio honetan Armila proiektuak eraman du hirugarren saria, esku-muturreko baten bidez haurtxoak zaintzeko web orriak, alegia. Nerea Arcenillas Morales, Jairo

Llarena Gómez-Marañón, Ainhoa Muñoz Fernández eta Gotzon González Vicente Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza Lizentziaturako (EAZI) ikasleek diseinatu dute proiektu hori.

ZITEK Ekintzaileak programaren bidez, Euskal Herriko Unibertsitateak enpresa sare bat sortu nahi du, ikerketa taldeen I+G+b emaitzetatik eta Bizkaiko Campusekin lotuta egon zen edo dagoen edozein ekintzailearengandik sortutako ideietatik abiatuz. ZITEK Ekintzaileak negozio edo enpresa

## Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako ikasleek "Think big 2014" sari bat irabazi dute

bat sortu nahi duten UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko unibertsitate-erkidegoko kideei laguntzeko programa bat da. Aldizkari honen bidez, eskerrak eman nahi dizkiegu Jon Hoyos eta María Saiz-eri, "Enpresak sortzea eta ekintzailetza" ikasgaiaren egindako lanagatik. Era berean, gure fakultateko unibertsitate-erkidegoa ekimen honetan parte hartzera animatu nahi dugu datorren ediziorako.





## Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna UPV/EHU

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legeak berdintasun unitateak sortzea aurreikusi zuen administrazio publikoaren eremuan. Agindu hori UPV/EHU 2006ko ekainaren 15ean gauzatu zen, Gobernu Kontseiluak Berdintasunerako Zuzendaritza sortu zuenean, ondoko helburu hauekin: UPV/EHU emakumeek eta gizonen arteko berdintasunarekin konprometitua. Lehenbiziko zuzendariak (2006-2009), Mertxe Larrañaga Sarriegi, ekonomista, Juan Ignacio Pérez Iglesias errektorearen mende zuzenean zegoena, akordioan ezarritako erantzukizunak bereganatu zituen eta beraiek betetzeko behar zen azpiegitura sortu behar izan zuen. Gobernu aldatu zenean, Iñaki Goirizelaia Ordorikak zuzendutako errektoretza taldearen pean, Jasone Astola Madariaga legelaria izendatu zuten (2009-2013). Zuzendaritza, orduan, Gizarte Erantzukizuneko eta Unibertsitate Proiektzio Errektoreordetzaren mende zegoen organikoki. Errektoreordea fakultateko beste irakasle bat zen: Amaia Maseda García. Zuzendaritzaren egitura sendotu zen: UPV/EHUren Berdintasun Batzordea eratu zen, bederatzi pertsonen osatua (bost irakasle, bi ikasle eta administrazio eta zerbitzuetako bi langilek), eta berdintasun teknikari bat

tegi honetako irakasle izan gara. Horrek erakusten du Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean aurretiaz lan bat egin dela, emakume eta gizonen berdintasunarekin konprometitua.

Lehenbiziko zuzendariak (2006-2009), Mertxe Larrañaga Sarriegi, ekonomista, Juan Ignacio Pérez Iglesias errektorearen mende zuzenean zegoena, akordioan ezarritako erantzukizunak bereganatu zituen eta beraiek betetzeko behar zen azpiegitura sortu behar izan zuen. Gobernu aldatu zenean, Iñaki Goirizelaia Ordorikak zuzendutako errektoretza taldearen pean, Jasone Astola Madariaga legelaria izendatu zuten (2009-2013). Zuzendaritza, orduan, Gizarte Erantzukizuneko eta Unibertsitate Proiektzio Errektoreordetzaren mende zegoen organikoki. Errektoreordea fakultateko beste irakasle bat zen: Amaia Maseda García. Zuzendaritzaren egitura sendotu zen: UPV/EHUren Berdintasun Batzordea eratu zen, bederatzi pertsonen osatua (bost irakasle, bi ikasle eta administrazio eta zerbitzuetako bi langilek), eta berdintasun teknikari bat

esleitu zitzaion.

Berdintasunerako Zuzendaritzak bere webgunea dauka, [www.berdintasuna.ehu.es](http://www.berdintasuna.ehu.es), eta bertan egindako lanaren emaitzak ikus daitezke. Besteak beste, hauek nabarmendu behar ditugu: UPV/EHU emakumeen eta gizonen egoeraren bi diagnostikoak; genero berdintasun eta ikuspegia ikertzen eta irakasten duten irakasleen gaineko datu-baseak; hizkuntzaren erabilera ez sexista egiteko eskuliburuak; UPV/EHUko Emakume eta Gizonen I. Berdintasun Planaren (2010-2013) testua eta emaitzak.

Orain badakigu, datuak eskutan, ezberdintasunak daudela emakumeen eta gizonen artean UPV/EHU, eta ikerkuntza plana horren adibide da. Badakigu halaber, esate baterako, emakume eta gizonen presentzia gure unibertsitateko zuzendaritza organoetan parekidetasuneranzko bidean dela azken urteetan. Eta bereziki, badakigu hobetu beharra daukagula, gure irakaskuntza eta ikerkuntza aipatutako 4/2005 Legearen 33.2 artikuluan jasotako

aginduari egokitzeko. Artikulu horretan azaltzen denez, euskal unibertsitate sistema eratzen duten unibertsitateek "irakaskuntza eta ikerkuntza lanetan, jakintza arlo guztietan, genero ikuspegia sartu behar dute, hizkuntza modu sexistan ez dela erabiltzen zaindu behar dute, eta emakumeen jakintza eta emakumeek Gizateriaren garapenari egin dioten ekarpen sozial eta historikoa txertatu behar dituzte". Eta horretarako UPV/EHU II. Berdintasun Plana egiten ari da. Irakasleei laguntzeko, laguntza deialdiak egiten ditu, jardunaldiak, biltzarrak, mintegiak eta abarrekoak antolatzen. Gure ikasleek berdintasunari buruz eta genero ikuspegiarekin egin duten lana saritzeko, hiru sari sortu dira: gradu amaierako lanik onenarena (Premio Francisca de Aculodi Saria); master lanik onenarena (María Goyri Saria) eta doktorego tesirik onenarena (Micaela Portilla Saria).

Helburu hau betetzeko bidean, zuzendari ohi biok ondo dakigu zein garrantzitsua izan den Fakultate honetako Berdintasunerako Batzordea sortu izana, 2013ko abenduan, horri esker egin dugun lana agerrarazi, antolatu eta hobetu ahalko delako.

Jasone Astola · Merche Larrañaga





## Enplegua- ren etorki- zuna Eus- kadin

Euskal Autonomia Erkidegoak erronka itzelak dauzka bere lan-eskuaren eraketari dagokionez. Egia da krisi honetan pairatu dugun lan hondamena ez dela izan estatuan izan dena bezain handia. Baina egoerak ez digu halere optimismoarako eta konformismoarako aukerarik ematen. Artikulu honetan etorkizun hurbilean aurre egin beharko diegun erronkarik garrantzitsuenetako batzuk azalduko ditugu, epe motzean gizarte gisa aurrera egin nahi badugu behintzat, eta gure ondorengoei uzten diegun herriko lan-baldintzak erakargarriak izatea nahi badugu, gazteek beste leku batzuetara lan aukera hobekak bilatzera joan behar ez izateko.

Aurrean dauzkagun erronka nagusietako bat 178.000 langile ingururen langabezia da. Euskadiko lan txostenak (<http://www.informelaboraleuskadi.org>) kolektibo horren egungo osaera erakusten digu. Datuak bereziki kezkarriak dira: lehenik eta behin, % 33ak (60.000 inguru) 45 urte baino gehiago ditu. Bigarrenik, % 56a (95.000 inguru) urte bete baino gehiago egon da langabezian. Baliteke langabetu horietako batzuek lana aurkitzea jarduera ekonomikoa berriro ere suspertzen denean. Baina beraien ezaugarriak kontuan izanik, ziurrenik gehienak ezin izango dira lan merkatura itzuli erakunde pribatu eta publikoen laguntza gabe, pertsona horien

gaitasunak eguneratzea eta lan berriak emateko politikak sortzea funtsezko helburu dituztenak.

Bigarren erronka garrantzitsua gure lan-eskuaren zahartzea da. Euskadin 887.000 pertsona ari dira lanean. Adinaren arabera aztertzen baditugu, ikusiko dugu kolektibo honen % 45ak 45 urte baino gehiago dituela (400.000 pertsona inguru). % 22ak bakarrik ditu 35 urte baino gutxiago (200.000 inguru). Gure biztanleria landunaren zahartze nabarmen hori oso kezkarria da, bai epe motzean, bai epe luzean. Epe motzean, frogatuta dago berrikuntzarako gaitasuna gazteen artean ohikoagoa dela. Beraz, biztanleria hain zahartu batek ez du ikuspegi itzaropent-sua eskaintzen berrikuntzaren ikuspegitik. Eta berrikuntzaren premia handia dugu, jakintzaren gizarterantz joan nahi badugu.

Gainera, epe ertain eta luzean, gure erkidegoak daukan piramide demografikoa kontuan izanik, dauzkagun langile gazteak ez dira nahikoak izango 45 urtetik gorako pertsonak ordezkatzeko, etorkizunean erretiratzeko hasiko direnak. 45 urtetik gorako pertsonen kolektiboaren beste ezaugarri bat ugaria izatea da: baby boometik datoz, beraien soldatak handiak dira edo izan dira eta, horrenbestez, etorkizunean izango dituzten erretiratze pentsioak ere handiak izango dira. Pentsio sistemari eusteko, nahitaez gertatuko den erretiro

hori kontuan izan behar da une honetatik aurrera, eta horren araberako tresnak sortu behar dira. Horri gaineratu behar diogu gure gazte prestatuenetako asko kanpora joaten ari direla, hemen ez daukatelako lanik. Beraz, arazoa are larriagoa da.

Baina ez da dena txarra. Gure lan egoeraren alderdirik positiboena langileen lan gaikuntza handian datza. Landunen % 40ak unibertsitateko prestakuntza dauka, eta % 42ak lanbide tekniko eta profesionalak. Datu horrek oso giza kapital prestatua erakusten digu. Beraien gaikuntza are handiagoa da pertsonarik gazteenen artean. Horrenbestez, gure erkidegoak giza kapital nahiko eta egokia dauka jakintzaren gizarteraren aldeko apustua egiteko. Gizarte honetan, industriaren sektoreak bere indar gidatzailea berreskuratu behar du eta zerbitzuen sektoreak eskaintzen dituen zerbitzuetan balio erantsi handiagoa eman behar du.

Orain, krisi ekonomikoa bukatzeaz omen dagoen honetan, euskal ekonomiak ondo prestatutako gazteak erakarri behar ditu, bai gure erkidegoak bai beste leku batzuetakoak. Horretarako, lan baldintza erakargarriak eskaini behar ditugu, ez soldata aldetik bakarrik, baizik eta prestakuntzaren eta lanean gora egiteko aukeren aldetik. Horrela bakarrik ahalko dugu, gizarte gisa, geure gazteen talentua hemen atxiki

eta lan premiengatik beste leku batzuetara emigratu behar izan dutenak erakarri. Ezin dugu luzaro itxaron ordea; beranduegi izan baino lehen egin behar dugu. Dagoeneko kontratatzeko moduan dauden euskal enpresek giza kapitalaren alde egin beharko lukete eta lan baldintza duinak eskaini, eta ez aldi baterako kontratuak (lansai osoan edo partzialean), azken hiru hilekoetan zoritxarrez egin duten bezala. Azken hiruhileko honetan sinatu diren 100 kontratutatik 90 aldi baterako kontratuak izan dira (57 lansai osoan eta 34 lansai partzialean), eta 10 bakarrik izan dira kontratu mugagabeak (8 lansai osoan eta 2 lansai partzialean). Lan baldintza hauek ikusita, denboran betikotzeko joera dutenak, gazterik onenek alde egingo dute, dudarik gabe, eta joan direnak ez dira itzuliko. Eta orduan, epe ertainean, gizarte honek konpondu ezinezko arazo izugarria izango du esku artean.



Sara de la Rica

